

Zer ote?

*Euskera ikasiz
barnetegian*

Gaztañerre azokan
Lesarri eta Arizaga
txapeldunak



Iñigo Eguren
Soraluzeko
"misterra"

JUAN ALBERDI 14.
BEHOBIA DONOSTIN.

Xabier Iribar:
Kanutiñloak



**Pil
bi
ean**

1999 ko Azaroak 30 18.alea

**GIRO TXARRAK
EZ ZUEN AZOKA ZAPUZTU**

GOL S.A. industriak

TORNILERIA-ESTANPAZIOA

ETA EXTRUSIOA HOTZEAN

Tfnoa. 943752100

Telex 38665GOL-E

20590 SORALUZE

Editoriala	1. orrialdea
Gutunak	2. orrialdea
Kale inkesta	3. orrialdea
Gizartea	4. orrialdea
Berri motzak	6. orrialdea
Sutondoaren epelean	8. orrialdea
Gaztetxoen txokoa	9. orrialdea
Kultura	10. orrialdea
Atzera begira	12. orrialdea
Sukaldaritza	13. orrialdea
Kirola	14. orrialdea
Gure sorgina	15. orrialdea
Hormatxulotik begira	16. orrialdea

OHARRA: Aurreko alean make-tatzailearen akats bategaitik zu-zenketa gabeko testuak argitaratu ziren, honegaitik barkamena eska nahi diogu Pil Pileanen irakurle orori.

Adeitsuki, erredakzio kontseilua.

Juan jaku azarua be demaseko hotza lagaz. Ondiok ez dau edurrik egin baina nork jakin ia ganbaratik plastikuak hartu eta Karakateko maldetan bera edurretan ibiltzera edozein arratsaldetan juatia tokauko jakun ala ez.

Dana dala, hilabeteak laga doskuz hotza (eta eurixa barra barra) ez dian gauzak be, gaztañerre azoka ondiok goguan daukagula etorri jaku eta abendua. Egixa esateko eurixak apurtxo bat desluzidu egin eban perixia baina bueno, hori ez zan eragozpen izan bertsoariak entzun, gauza edarrak dastatu, ikusi eta ikasi ahal izateko; ezen eta nik behintzat gauza oso inportantia ikasi neban ganaua ikustera juan ginanian: tratuan eitxeko ganauari iztarrak eta atzekaldia begiratu bihar jakozela ondo, bestela ikustia besterik ez zauan ze aldetan eguazen benetan honetaz ententitzen dabezenak, baserritxarrak.

Gaztainak jan, jan ginuzen, bai ugari be, nahiz eta hurrengo goizian inork gure aldamenian aguantau ez (badakizue, haiziak...). Kalian be demaseko ambientia egon zan goizeko ordu txikiak arte (ze demontre, ordua zen Plaentxian zeozer egoteko...).

Besterik barik, denporiak estutu baino lehenago banoia estankora sobria eta seilua erosi eta Olentzerori kartia idaztera bestela ikatza besterik ez dot jasoko eta...

Telegrapak: Aurreko aleko portadako titulua polemikoa gertatu omen da eta inor minduta sentitu baldin bazen barkamena eskatzea besterik ez zaigu gelditzen. **STOP.** Itxura denez akats zuzenketa



arloan ere ez omen ginen finegi ibili... (oraingoa ipurdia gorri gorri jarri digute). **STOP.** Plaza berriari izena aldatu eta Plaza posmoderno jarriko al diote? Harri berriak oso politak dira baina asko garbitu arren ere zaharrekin ez omen dute gehiegi pegatzen (herritarrek esana). **STOP.** Azken aleko lehiaketan jende askok hartu zuen parte (nahiz eta bi pertsonak bakarrik beteko dituzten beraien sabelak afari oparo batekin...), eskerrikasko! Eta segi saiatzen agian zu zeu izan zintezke hurrengo irabazlea! (Despistatuentzat lehiaketa azken orrialdeetan egoten da!!!). **STOP.** Formalak izan eta hurrengo alerarte!

Argitaratzailea: Pil pilean kultur elkarte. Frontoia 5b. **Zuzendaria:** Egoitz Unamuno. **Zuzendari ordeak:** Inaki Alberdi eta Eduardo Pombar. **Erredakzio kontseilua:** Inaki Alberdi, Gurutze Ariznabarreta, Maite Etxeberria, Eduardo Pombar eta Egoitz Unamuno. **Erredaktoreak:** Amaia Agirre, Aitziber Gantxegi, Jose Ramon Gomez, Elene Alberdi, Pedro Deza, Ubane Madera, Bittor Trebiño, Oier Oregi eta Gorka Prieto. **Maketazioa:** Sabin Mendizabal. **Publizitatea:** Inaki Alberdi eta Elene Alberdi. (943751304 tel.) **Banaketa:** Pil Pilean. **Tirada:** 1700 ale. **Inprimategia:** Gertu Koop.

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkarian esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Denda berria

Textil Agirrezabal

- Alfanbrak eta moketak (fabrikatik zuzenean)
- Hondartzaroko toolak (belgiarrok)
- Ehunak eta oihalak
- Tapizeriak
- Kertinak
- Nordikoak
- Era guztietako etxerako gaiak

AIT-ITV eta autobus geltokitik 100 metroa

Gotzon Agirrezabal
Tel./Faxa: 943 76 72 52

ORDUTEGIA
astelenean zapatura:
10:00-13:00
eta 16:00-20:00

Amillaga Industrialdea, 5 - BERGARA - Renault-en ondoan

XELEBREKAERIXAK

Lengoan gertaera xeble baten begirale bilakatu nintzen ustekabeen. Azaroak 6 a larunbata eta lehenao gertatzen ez zan moduan, asto eta gizakumea, gizakumea eta astoa papelak aldatu aurkitxu nitxuan bide ertzian. Izenik ez dot emongo, baina jakin daizuen San Andres auzuan pasau da gertaera xeble hau.

Arratsaldeko lauterdiak inguruan Barrenetxe baserrixa baino zeozer goratuauan, Obeko astua aurkitzen zan belar jaten. Oin artekua normaltzat hartu geinke, baina halako baten han nun ikusten doten haren onduan gizakumia sorbalda gainian abar pilia hartuta dabela goitxik behera kalera bidian. Bixak parian jarri orduko, hau irudi xeblea, honek gogora ekartzen doztaz aitzitxak txikitan kontautakuak: "Gurian, ni ume nintzanian 5 asto heren...", "Harek danak hartuta jua hari kalera egunero esnia partitza". Ta beitu oin zela aldatu dian gauzak, leno

lanian zana oin janian. Gure gizakumiori be konturatu zan xeblekeri honekin da hasi zan kantari (bertsotan be habila nunbait) beran lana arintzeko asmoz edo... Izan be gauzarik xelebriena honetxen lana bait genduan. Etxian entzun izan dot zeozer antxina ein izan zian apustu xelebrieri buruz baina holakorik sekula entzun barik neuan. Gizakume hau karga hartuta kalera juateko arrazoia apustu batian aurkitzen dou: Abar pilia sorbaldan hartuta kalera bueltia ein bihar zeban bape deskantxurik hartu barik, Karakateko bideko 4. kilometrotik gutxigorabehera.

Probalarixa goitxik beheruntzian oilarra moduan puztuta bertsotan kantari abiatu zan baina behin Estazinuan bueltia hartu ostian, nahikua lan izan zeban arnasiari eutsi ta gora juaten. Esan biharra dau apustua edo proba lortu zebala burutzia, naiz da justu xamar ailegau, ta merexitxako ordaina jaso zebala.

Negu Beltza

Gutunen bat baldin baduzu eta guka argitaratzea nahi izan baduzu, ez duzu Soraluzeko 64 P.K. ra bidaltzea besterik. (toki arazoegaitik mesedez ez daitezela 15 lerro baino luzeagoak izan).

ARANE
Kiroldegia



Tel: 943752466

ARRANO-TABERNA
SORALUZE



MARTXA eta BORROKA

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

LAUDIN, S.A.L.

Industrialdea, z/g
138 Postakutxa
tf: 943752150
Faxa: 943752118
SORALUZE

Benito
Anaiak
Altzariak



Santa Ana 26 tfnoa: 943752047

Joango al zinateke barnetegi batera? Bakarrik edo familiarekin?



Eli Cifuentes.
35 urte langilea

Euskaltegian ibilita nago eta oso gustora joan izan naiz, baina gero kalean egiten animatu behar zara, horregatik barnetegiaren ideia oso ondo ikusten dut, baina bakarrik joateko, ez lagunekin ezta familiarekin ere. Nire us-tez bakarrik joanda gehi-go ikasiko nuke, euskeraz gehiago egingo nuke.

Euskaltegian ibili nintzen bederatzi hilabetez eta barnetegi zer den badakit, baina nahiko garesti ak izan behar direla uste dut. Nire kasuan bakarrik joatea errazagoa da emaztearekin joatea baino, berak ez daki euskeraz eta.



Eliodoro Alvarez
57 urte fresadorea



Sebas Hernandez
27 urte igeltseroa

Euskera ikasteko, barnetegi toki ona iruditzen zait, gainera, neskalagunarekin joatea bakarrik joatea baino errazagoa dela uste dut. Kalean gertatzen dena da, askotan zerbait gaizki esateko beldurrez ez duzula esaten, honela lotsa gutxiago edukiko nuke. Familia osoarekin joatea guztiz positiboa ikusten dut.

Ikastea ez zait gustatzen, horregatik ez nintzateke euskaltegira joango. Barnetegira ere, ni bakarrik edo familiarekin ez nintzateke joango, baina, beharbada kuadrilan joango bagina animatuko nintzateke.



Iker Perez.
17 urte langilea



Etxean umearekin euskeraz egin arren, gure artean erderaz egiteko ohitura daukagu, horretarako barnetegi ona izan daiteke. Dudarik gabe, guretzako denok joatea askoz erreagoa izango litzateke. Gainera, nire anaia bat egonda dago eta emaitzak oso onak direla ikusi dugu.

ALBERDI MENDEZ FAMILIA

ATXOLIN TABERNA

Pintxo bereziak, hotzak eta beroak

Elizburu kalea 1 Tlfnoa: 943752131

SORALUZE



JATETXEA

TXURRUKA

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE


BARNETAGIRA SEME ALABEKIN

Tere eta bere seme alabek Azkoitiko famili barnetegi batean pasa dituzte hamabost egun abuztuan. “Nik euskeraz gutxi baina nire seme alabek beti euskeraz egiten dute”

Euskeraz ikasteko asmorik ez duten guraso askoren leloa da hori. Beste kasu batzuetan ordea, euskeraz ikasi eta etxean seme alabekin hitzegiten saiatzen dira. Ez da erreza etxeko ohi-turak aldatzea, eremu horietan erderara jotzeko tentazioa haundia izaten da eta.

Arazo hori gainditzeko eratzen ditu AEK k famili barnetegiak. Horrela gurasoek, seme alabekin euskeraz egiten trebatzen diren bitartean, euskeraz ikasten jarraitzen dute.

Horrelako barnetegi batean izan da Tere Ariznabarreta. Berak kontatu digunez aspalditik zeukan, barnetegi batera joateko gogoia baina beste askok bezala, AEK an galdetu eta Azkoitikoaren berri izan zuen arte ez zekien famili barnetegirik zegoenik ere. Aitor-tu digunez bere kasuan erabat baliogarria izan da era honetako barnetegi bat aurkitu izana, horrela seme alabak beste inorekin utzi beharrik izan gabe berarekin eraman ahal izan ditu eta.



Barnetegiko helduak beraien seme-alabentzat antzezen

Pil Pilean: Zenbat lagun izan zineten hamabost egun horietan barnetegian?

Tere: Hamalau heldu. Bi aita, bi bikote eta zortzi ama, bi mailatan banatuta.

Pil Pilean: Kontaiguzu, nolako zen egun arrunt bat barnetegian zer egiten zenuten?

Tere: Goizean 8:30 etan jaiki eta 9:00 etan konbentu batetatik ekarritakoa gosaltzen genuen. Egunero lanak banatzen genituen taldeetan, batzuk komunak garbitu, beste batzuk gosaria prestatu... Jana oso ona zen, pentsa, hiru kilo hartu nituen. Abestera ere joaten ginen egunero umeekin batera. Gu goizetan eskolan geratzen ginen bitartean

umeak jolastera joaten ziren ikastolara hiru begiralerekin. Goizetan hiru orduko eskolak hartzen genituen. Gero denok bazkaltzera joaten ginen eta arratsaldean berriz ere eskolara. Arratsaldeko eskolak ez zitzaizkigun horren astunak egiten. Gurasook antzerkiak prestatzen genituen umeen aurrean antzezteko eta beraiek ere prestatzen zituzten gure aurrean antzezteko eta horrela errez joaten zitzaigun arratsaldea.

Txangoak ere egiten genituen, Azkoitiko trenen museora, aerobik eskolak hartzera, jokuak egitera etab.

Larunbatetan ere eskolak

“Euskal Herrian gaudenez denok dugu euskara ikasi beharra”

ALAITZ TABERNA

EZOZI ETORBIDEA
TfnOA: 943751190
SORALUZE

IRATXO

GOXOTEGIA

EGUNKARIAK
GOIZEAN
GOIZ.

Etxaburueta, 4

TfnOA: 943751320/1464

GIZAFLASH!

izaten genituen eta igandeetan berriz irteerak.

Pil Pilean: Orduan asteburuetan ere han geratzen zineten. Bisitarik izaten al zenuten?

Tere: Bai, nire kasuan ez, baina izaten ziren bai.

Barnetegian bera ezezik, seme alabak ere oso gustora egon omen ziren. Lehenengo egunetan Tereri euskeraz egin beharra gogor samarra egin bazitzaion ere laster ohitu eta lasaitu omen zen. Seme alabei ez omen zitzaion horren gogorra egin eta esan zigunez alaba irrikitan omen dago datorren urtean berriz ere famili barnetegiren batera joateko, udalekuetara joatea baino nahiago omen du.

Pil Pilean: Garestia al da, era horretan euskeraz ikastea?

Tere: Ez oso merkea da. Gu hiru joan ginen eta laurogei mila pezeta ordaindu genituen. Abuztuan beste edozein lekutara joatea garestiago ateratzen da.

Pil Pilean: Opor alternatibo batzuk

bezala hartu litezke orduan?

Tere: Bai horixe!

Barnetegian lagun asko egin zituzten eta jarraitzen omen dute elkarrekin kontaktuan. Eskutitzez gehienbat baina bazkaritxoren bat ere egin omen dute Hernani alde horretan.

Pil Pilean: Kontaiguzu anekdotaren bat.

Tere: Joan aurretik neska batek esan zidan ea nola joango nintzen euskeraz ongi jakin gabe barnetegi batera, bota egin-go nindutela. Orain eman didaten agiria erakutsi diot.

Pil Pilean: Zer esango zenieke famili barnetegi batera joan ala ez joan dudan daudenei?

Tere: Ni oso ondo eta gustora ibili nintzela eta Euskal Herrian gaudenez denok daukagula euskaraz ikasi beharra. Umeek ikastolan egiten dute euskaraz eta gero etxean hobeto ulertzeko beharrezkoa da ikastea. Denak animatzen ditut euskeraz ikastera.

Guk ere animatzen zaituztegu / ditugu euskaraz ikastera. Ikasi merezi du eta!



Tere eta bere seme-alaba (ezkerrean) Xoxotera eginiko txangioan.

PLAZA BERRIKO "GERNIKA 37-87" HORMIRUDIA EZABATU DUTE

Hil honetan, urte pila galantean Plaza Berriko horma apaindu duen hormirudia ezabatu dute. Hormirudi honek Gernikako Bonbardaketaren urteurrena oroitarazten zuen (berria noizko?).



Langileak homirudia ezabatzen.

GIZARTE ESKUBIDEEN ALDEKO IBILALDIA SORALUZEN

Azaroaren 20-an arratsalde partean, edurra eta giro txarra gaituz, Gizarte Eskubideen Guntunarekiko Elkartasunezko Ibilaldia pasatu zen herritik. Martxa honetan, lagun bakoitzarentzako lanpostu bana eta 83.000 peztako giza soldata eskatzen dira.

SANTA ZEZILIA EGUNA

Azken urteetan egin duen, lez Musika Eskolak aurreko larunbatean atera zituen bere ikasleak kalejiran. Eguraldi kaxkarra izan bazen ere, musikak, entzuten izan zen jendearen belarriak goxatu zituen. Aupa Santa Zezilia !!


LAKUESTA OPTIKA
OPTIKO-OPTOMETRISTAK

IKUSMEN ARAZOEN FROGAK ETA ARGIBIDEAK

ARGAZKIAK ERREBELATZEN DITUGU

SANTA ANA 22
TEL: 943753059

20590 SORALUZE
(GIPUZKOA)



JUAN EIZAGIRRE TXAPELDUN BAKAILAU LEHIAKETAN

Azaroan Itxaropena egoitzan antolatu zen bakailau lehiaketan Juan Eizagirre suertatu zen garaile, 51 punturekin. Denetara zazpi izan ziren aurkeztu ziren sukaldariak, denek prestatu omen zituzten oso jaki goxoak baina nolabait ere lehiaketaren legea da eta epaileek erabakia eman ostean, honela gelditu zen sailkapena:

1. Juan Eizagirre
2. Kontxi Elkoro
3. Jose Olamusu
4. Ana M^a Aristi
5. Sebastian Arriaga
6. Joakin Mielgo
7. M^a Pilar Agirrebeña

PERRETXIKU ERAKUSKETA ETA TXAPELKETA EGIN ZEN KIROLDEGIAN

Azaroaren 14 an, igande goizaldean, egin zen Udalak urtero antolatu ohi duen perretxiko erakusketa. Hasieran Plaza Zaharrean jartzeko asmoa izan bazuten ere, gero goiz hartan izan zen eguraldi txarrak, Kiroldegiko frntoian egitera behartu zituen antolatzaileak.

Erakusketan Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetako neska mutikoez hartu zuten parte eta denetara 13 taldek eman zuten izena, talde bakoitza lau partaidez osatuta. Goizeko hamaiketarako, kaxetan jarrita, txukun txukun, bere izen eta guzti, aurkeztu zituen talde bakoitzak bere perretxikuak. Aurkeztu ziren talde guztien lanak ondo begiratu ostean epaile lanetan jardun zuten Barrengorri Elkarte Mikologikoko kideek honela banatu zituzten sariak:



Talde bakoitza bere perretxikuak erakusten.

PIL PILEANEN SARTZEKO DEIALDIA

Azaroan Pil Pilean Kultur Ekarteak aldizkarian parte hartzeko deialdia egin zuen. Aldizkarian bertan ateratako ohar baten eta kalean itsatsitako karteletan herritar guztiei egin zitzaizkien hileren 11 an ostegunean egin zen ohiko bilerara etortzeko gonbitea. Ez zen jendetza haundirik azaldu baina Pil Pileanen partaide kopurua handitu duten bi mutil behintzat azaldu ziren, Xuban Katalan eta Aitor Madriz. Oraindik ere badago lekua gehiagorendako, nahi duenak badaki non gauden eta etor dadila ostegunero bederatzietan egiten dugun bilerara, "ez zaio damutuko!"

EH K OSOKO BILKURAK HILEBETERO EGITEKO PROPOSAMENA EGIN ZUEN

Joan den azaroan egindako bilkura arrunt batean Regina Maiztegi EH ko zinegotziak, Udaleko osoko bilkurak hilabetero egiteko proposamena egin zuen. Bilkurek orain duten maiztasunarekin, batzuetan nahiko estu ibiltzen direla esan zuen. Alkateak bere aldetik, erabakirik hartu aurretik udalkide guztien iritzia jaso eta ondoren ondo hausnartu beharreko kontua zela gaineratu zuen.

ITUR Iturgintza


Iturgintza, gas eta kalefakzio instalazioak

Santa ana 20

Tlfuoa: 943751241

Soraluze

MENDIZABAL OKINDEGIA



Kalebarren, 10 -Tlf: 943752091

Baltegieta, 6 -Tlf: 943751399

BABA JANAK GAZTAÑERRE AZOKAREN INGURUAN

Gaztainerre azoka zela eta, bera aitzakitzat hartuta baba jan ugari izan ziren larunbat hartan herriko elkarte gastronomiko eta jatetxeetan (Arranoan, Armendin, Alkazar...). Kuadrila eta lagunartean bazkari edo afariak (batez ere babajanak) eginaz egun hau ospatzeko ohitura indartzen ari dela dirudi. Beraz gerta liteke hemendik aurrera jaietako tanborradaz gain "antz" haundia duen beste bat ere antolatzea gaztañerre egunean.



Lehenengo perixia ikusi eta gero bazkaltzera!



Nahikoa irudi barregarriak ere ikusi ziren afalostean.

AEK ETA PIL PILEANEK ANTOLATUTAKO GAZTAÑERRE AFARIA

Azken urte hauetan egin den bezala AEK eta Pil Pileanek aurten ere afari herrikoia antolatu zuten Gaztañerre egunean (azaroaren 15 ean). Aurreko urteetan ikastolako gimnasioan egin bada ere aurten gimnasioa ikasgela bihurtuta dagoela eta, Gaztetxeko beheko lokalean izan da afaria. Trikitiaz alaiturik, poteo txiki bat egin zuten lehenengo, tartean aurretik danbolinean bueltaka bueltaka erretako gaztainak janaz. Ondoren lagunarte ederrean afaldu ostean, joku eta lehiaketak egin zituzten bertaratu zirenen gozamenerako eta besterik gabe sariak banatu eta amaiera eman zitzaion milurteko honetako azken Gaztañerre afariari.

UDALTZAINAK ASTEBUKAERA ETA JAI EGUNETAN

Enplegu eta Langilego batzordeak proposatuta, udaltzainen lan ordutegia handitu eta astebukaera eta jai egunak barne hartuko dituen lana egitea, erabaki zuen Udalak eta honekin batera Epaitegiko idazkaria kargugabetu eta Sara Lete udaletxeko langilea izendatu zuen honek utzitako tokia betetzeko.

ZABORRONTZI BERRIAK JARRI DIRA

Aurreko alean iragarri genuen bezala, azaroan zaborrontzi berriak jarri dira herrian. Zaborrontzi berri hauek hori kolorekoak dira eta latak, plastikozko botilak eta tetrabrikak hartzen dituzte gero birziklatzeko. Zeozertarako jarri dira, bereizi eta bota zabor mota bakoitza bere zaborrontzira!



Beste zaborrontzien ondoan jarri dira berriak ere.

UDALAK EUSKAL MUSIKA JARTZEKO ESKATU ZUEN GAZTAÑERRE EGUNEAN

Ziur gaztañerre egunean kantu eta parranda betean, iñor ez zela konturatu tabernetan nagusiki euskal musika jarri zenik. Tabernariak Udalak egindako eskakizun bat zela tarteko, honi jaramon egin eta euskal musika jarri zuten ia egun guztian. Ekintza txalogarria benetan!

ARIZAGA BASERRIA HIRU URTETAN TXAPELDUN ETA AURTEN BIGARREN.

Gogoan daukat oraindik baesarritarrek kalera astoz etortzen zireneko sasoiak, martxak eta tratua plazaratu eta errekauek igotzeko zein balio-tsua zen. Izan ere, denbora gutxi behar izan du aurrerapenak

gure bizitzetan sartu eta astoa galtzeaz dagoen espezie bilakatzeko.

Baina ordenagailuak, ibilgailuak,... milaka gailuk hartu dute bere lekua gure gaur egungo gizartearen eta nola ez

baita Soraluzean ere. Gaur egun urtean behin biltzen dira gure baserriar eta artisauak Erregetxean, garai bateko astotokian. Gozatzekoa izaten da sortzen den giroa, gozatzekoak bertako produktuak eta goza-

tzekoa denen lana eta ilusioa. Azken urteotan Arizaga baserria txapelidun orde izan den Ezki Etxeberriarekin hitzein dugu Gaztañerre azokaren beste aurpegia ezagutzeko.

- Gaztañerre Azoka..

Egun berezia Soraluzetarrentzat eta ingurukoentzat, gainera azokaz gain bestelako ekintzak egoten direnez, herri kirolak, etab. jendea gehiago animatzen da.

- Nola ikusten da azoka postuaren beste aldetik??

Jende asko baldin badabil, hobeto.

- Lan asko egin behar al da?

Lan asko bai, batez ere azken hiru egunetan. Egun horretan goizeko 4,30etan edo... gora! hori gau guztikoa egiten ez badugu. Buruko pañolua janzen ere ez gaude ohituta eta denak behar du denbora...

- Lehia handia al dago baserriarren artean?

Ez, denok saiatzen gara asko, bakoitzak ahal duena egiten du eta aurrera.

- Zer produktu izaten dira salgai zuen postuan?

Ikusten dituzuna, k...ogia,



barazkiak, kontserbak, erreposteria, etxean egindakoak...

- Zergatik uste duzu izan zaretela txapelidunak?

Hori ez nuke nik erantzun behar, galdera hori epaimahaikoei egin beharko zaie, ez?

Baserriko produktuak garestiak dira..

Ez, egiten den lan guztia ikusita merkeak dira, eta gainera lan guzti horri aldapan egin behar izatea gehitu behar diozu.

- Konparatu oraingo baserria eta lehengoa?

Orain ez dago hainbeste arazo, adibidez bidea dago etxeraino, bizitza errezagoa da. Lehen goiz osoa ematen zen lan bat egiteko eta hori eginda nahikoa, orain berriz, kotxearekin bost egiten dira eta jo ta sua batetik bestera ibili behar, horrela gero "stresatuta"

- Nork dauka meritu handiena?

Urteetan zehar jarraitzeak, jendearen erantzunak eta herrian denok bat eginda egoteak dauka meriturik handiena.

“Oraingo baserriarren bizitza errezagoa da.”

ISILEAN

Hiru desio

Lana egiteari uztea, osasuna, eta maitasuna

Gustoko janaria

Babarrunak odolkiekin

Baserria...

Niretzat lasai egoteko lekua da, zaratatik ihes.

Saria irabaztean

Satisfakzio handia sentitzen da, azken finean. Lanaren errekonozimendua da.

Isilean zer gorde behar izaten da

Gauza asko

Gaztaina erreak

Oso goxua bai erreak, bai egosiak.

Zein da baserriko produkturik zoragarriena

Denak

Lanik zailena..

Labrantzia, hori da gogorrena.

TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behea, telf.: 943751789



ERA GUZTIETAKO INSTALAZIO ETA KONPONETAK, ETXETAKO ZEIN INDUSTRIALAK. ATEZAIN AUTOMATIKOAK, BERO AKUMULAGAILUAK GAU TARIFARAKO.

GANTXEGI

ELEKTRIZITATEA

Errekalde, 2 104 p.k.

Telf: 943751959

Soraluze

ETXEAK

zure esku

...eta kitto!
drogeteniturri
goibekokale
pil pilean

INMOBILIARIEN GEHIGARRIA

Honakoa da Eibarko ...eta kitto!, Elgetako Goibekokale, Ermuko Drogeteniturri eta Soraluzeko Pil pilean aldizkariok hilabete honetan argitaratu dugun INMOBILIARIEN GEHIGARRIA. Eibar, Ermua, Elgeta, Mallabia, Soraluze eta kostaldean banatuko dugu ale berezi hau.

11.000 ale kaleratuko dira, 35.000 irakurle ingururendako.

2. zenbakia. 1999ko azaroa

Publizista: Mertxe Agirre. Diseinua eta maketazioa: Koldo Mitxelena Zumaran.

Tirada: 11.000 ale. Tel. 943 20 67 76. Faxe. 943 20 67 76

AUKERA

INMOBILIARIA

 API 208

Etxebizitza eta lokalen
salerosketa eta alokairua

Tasazioak

Aholkularitza

Gipuzko osoko eta era
guztietako eraikinen
datu basea zure esku

Toribio Etxebarria 10, behea

Tel. 943 12 13 95

Faxe. 943 20 06 41

20600 EIBAR



IBAI-ONDO Inmobiliaria.
EIBAR

Bidebarrieta 60
Tel. 943 20 12 13

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Romualdo Galdos	2 logela, egongela/jangela, sukaldea, komuna.	Galdetu
EIBAR	Ipuruako dorreak	3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun.	Galdetu
EIBAR	Errekatxu	3 logela, egongela, sukaldea despentsarekin, komuna.	Galdetu
EIBAR	Amaña	4 logela, egongela, sukaldea eta komuna.	Galdetu
EIBAR	Isasi	2 logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa.	Galdetu
EIBAR	Bittor Sarasketa	3 logela, egongela, sukaldea, jangela, komuna.	Galdetu
EIBAR	Miraflores (baserria)	3 solairu, 34.000 m ² ko terrenoa.	Galdetu
ELGETA		3 logela, egongela, sukaldea, komuna.	Galdetu
MUTRIKU		Logela, sukaldea/jangela, egongela, komuna, terraza.	Galdetu
ERMUA		2 logela, sukaldea, egongela, komuna.	Galdetu
EZKARAY		4 logela, egongela, sukaldea, 2 komun.	Galdetu
NOJA		2 logela, egongela, sukaldea, komuna, garajea.	Galdetu
NOJA		3 logela, egongela, sukaldea, komuna.	Galdetu
EIBAR	Carmen 7-9	Garajea. 38 m ² .	Galdetu
EIBAR	Asua Erreka	Lokala (400 m ²).	Galdetu
EIBAR	Legarre	Lokala (330 m ²).	Galdetu
EIBAR	Urkizu 7, behea	Lokal komertziala.	Galdetu
EIBAR	Barrena	Lokal komertziala (300 m ²).	Galdetu
ERMUA	San Lorenzo	Lokal komertziala (100 m ²).	Galdetu
EIBAR	Bidebarrieta	Lokal komertziala (90 m ²).	Galdetu

EDER Inmobiliaria.
ZARAUTZ

Trinidad 1, behea
Tel. 943 13 13 00

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
ZARAUTZ	Erdialdean	3 logela eta egongela. Iparra eta hegoa.	31.000.000
ZARAUTZ	Argiñano inguruan	2 logela, egongela, argitsua, garajea.	36.000.000
ZARAUTZ	Residentziala	Etxe izugarria, hondartzara begira, garaje bikoitza.	Galdetu
ZARAUTZ	Azken portu	4 logela, egongela, 2 terraza. Iparra eta hegoa.	29.000.000
ZARAUTZ	Hondartza parean	Logela bateko eta biko apartamentuak egongelarekin.	Galdetu
NAFARROA	Santacara	Erdialdean dagoen harrizko etxea herrixkan.	4.800.000



**...eta kitto!, Drogeteniturri,
Goibekokale eta Pil pilean aldizkarien
INMOBILIARIEN GEHIGARRIA**

GARMENDIA Inmobiliaria.
EIBAR

San Juan 9, behea
Tel. 943 20 34 13

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Polonia Etxebarria	3 logela, komuna, egongela, sukaldea.	Galdetu
EIBAR	Amaña	3 logela, egongela, sukaldea, komuna.	Galdetu
EIBAR	San Andres	2 logela, egongela, komuna, sukaldea.	Galdetu
EIBAR	Argatzako jardiñak	135 m ² ko lokala salgai.	Galdetu
NOJA (SANTANDER)		Pisuak salgai.	Galdetu
TORREVIEJA (ALICANTE)		Pisuak salgai.	Galdetu

EKAIN Inmobiliaria.
ZARAUTZ

San Ignacio 1, behea
Tel. 943 82 70 49

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
ITZIAR		4 duplex eraikiko dira garajearekin eta itsasora begira.	Galdetu
ITZIAR		2 logela, garajea, itsasora begira etxea eraikiko da.	Galdetu
ITZIAR		3 logela, garajea, itsasora begira etxea eraikiko da.	Galdetu
GETARIA	Elkano kalea	Logela bateko etxeak eraikiko dira.	Galdetu
GETARIA	Elkano kalea	2 logelako etxeak eraikiko dira.	Galdetu
GETARIA	Elkano kalea	3 logelako etxeak eraikiko dira.	Galdetu

CARLOS VEGA INMOBILIARIA

- ☞ Erosketak
- ☞ Salmentak
- ☞ Alokairuak

San Juan, 1 ☎ 943 70 16 57
20600 EIBAR

EUKI API (323)

ZURE ETXEA, LOKALA, GARAJEA...
*saldu nahi ezkeror, **otorri guregana***

T. Etxebarria 1 -EIBAR- Tfnoa. 943 20 03 58

EUKI Inmobiliaria.
EIBAR

Toribio Etxebarria 1
Tel. 943 20 03 58

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Urkizuko dorreak	80 m ² , 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, calefakzioa.	27.000.000
EIBAR	Errekatxu	75 m ² , 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.	10.500.000
EIBAR	Paziano Arosa	Buhardila, 2 logela, egongela, sukaldea, komuna.	7.500.000
EIBAR	Amaña zaharra	75 m ² , 4 log, egong., sukal., komuna, gasa. Egoera onean.	15.900.000
EIBAR	J.A. Mogel	65 m ² , dena kanpo aldera, berriztatzeko.	15.500.000
EIBAR	Ego-Gain	53 m ² , logela, egong., suk., komuna. Berria, altzariak, gasa...	23.000.000
ZARAUTZ	Karmelitak urbanizazioa	70 m ² , 2 logela, sukaldea, egongela, 2 komun, garajea...	35.000.000
ZESTOA		Garajedun apartamentu, pisu eta duplexak.	12.000.000tik aurrera
ELGETA		Garajedun apartamentu, pisu eta duplexak.	14.000.000tik aurrera
Jatetxe-Hotela salgai.		Berria, guztiz ekipatua eta funtzionatzen dagoena	Galdetu
EIBAR	Eibarko Txikito	Lokala salgai, 200 m ² .	22.000.000
EIBAR	Ifar kale	Eskaparate handiko lokal komertziala. 115 m ² .	30.000.000
EIBAR	Ifar kale	Eskaparate handiko lokal komertziala. 170 m ² .	43.000.000



INMOBILIARIEN GEHIGARRIA

35.000
irakurle

11.000
ale

Lau aldizkarion elkarlana
zuen buzoietan

DROGETENITTURRI

Pil
bi
ean

Goibek
kale



GAZTANERRE EGUNA

Gaztannerre egunean umeeek beren aitona amonean argazki zaharrak ekartzen dituzte. Argazkiak kartulinetan jartzen dira, argazkien azpian beren izenak ipiniz. Aintzinako argazkien erakusketa oso polita da animo!

Jendeak aspaldiko tresnak ekartzen ditu, erakusketa antolatzeke: plan txak, aitzurrak, aizkora, sega, taloa egiteko pala, zepiloa, dirua, esne marmita ...

Guzti hauek antzinakoak dira eta egun batez dena ikusgai berriz ere!

6. mailakoak Gaztannerre azoka egunean, ostiral goizean, pintxoak prestatu ohi dugu. Pintxo hauek gazta eta menbrillozkoak izaten dira. Hauek azokara etortzen diren guraso edo herriko edozein pertsonari ematen zaie. Alboan bote bat egoten da nahi duenak dirua sar dezan.

Gaztannerre azoka egunean baserritar jantzita hainbat egoten dira. Hau



ohitura moduan egiten da eta baita baserriko produktuak saltzen direlako.

Larunbatean ere herriko azoka nagusian jende asko egongo da baserritar jantzita.

Gaztannerre eguna Animen egunetik bigarren astelehenean ospatzen da. Eskolan jentea alaitzeko, abestiak, jolasak e.a. egiten dira. Gauzak apaintzeko 1., 2. eta 3. mailakoak hostoak batzera joaten dira mendira. Gero

nagusiagoak sarreran jartzen dituzte apainduta geratzeko.

Gaztannerre egunerako gaztainak kiloka erosten dira. Erre aurretik gaztainerri begia kendu behar zaie eta gurasoei eskatzen zaie lan honetarako laguntza. Pozik etortzen dira. Hau egin ondoren herriko baserri batetara eramaten dira erretzera.

Aurten, urtero bezala, gaztannerre eguna ospatzen da. Gela guztietan, den

arte, bertsoak asmatzen dira. Lehenengo irakasleak idazten du arbelean, gero ikasleak papelean idazten dugu eta apaintzen dugu patiora irten aurretik. Gaztainerri jan ondoren denok abestu egiten ditugu bertsoak.

Ume bakoitza etxetik egunkari paperak ekartzen ditu. Astelehenean gaztannerre eguna ospatzeko. Gelan periodiko papelekin kukurutxoak egiten dira gaztainerri bertan sartzeko eta jateko.

Haur-Hezkuntzakoek beheko frontoian kotxeak lekua ez dutenez lagatzen, Estazioko patiora etortzen dira denok elkarrekin egun hau ospatzeko. Txikiak emozionatu egiten dira handiengana etortzen direlako.

Patioan danbolina jarriz eta gaztainerri bertan errez egun zoragarria pasatzen dugu, gehien bat txikiak.

Oraingo honetan, zuek alaitzeko eta entretenitzeko, txisteak, denborapasak eta abestiak eskaintzea erabaki dugu. Espero dugu zuen gustukoa izatea, beraz, ondo pasa.

TXISTEA

Gizon bat txiki txiki txikia zenez, hanka usaina izaten zuen buruan.

KALEKO JOLASA

*Zubiri-zubiri
nongorik nongo
nongo alkate zerade?
Frantziako errege baten
seme-alaba gerade.
hurren-hurrena zulo honetatik
pasatzen dena
hemen geldituko dela
hemen geldituko dela*

Bi pertsonak zubi bat
Egiten dute eta besteak
Azpitik pasatzen dira,
Tren bat eginez.

JOKUZ KANPOKO HITZAK

GAUZAK

Asma ezazu hitz zerrenda honetan zein den jokuz kanpoko hitza

Mahaiak, orriak, arbela, estutxea, arkatza, aterkia, grapagailua, aulkia, kaja, tximinoa, txamarra.

Txakurra, txabola, txalupa, txerria, txopa, txirrina, tzoria, txandaka, txanoa, txingorra, txoratuta, txistu.

NOLA DAKIZU? _____

Baserritarrak eta artisauak pozik Gaztañerre azokarekin

Azokak antolakuntza ona duela da parte hartzaileen iritzia

Gazteñerre egunak azoka ekarri digu Plazentziara laugarren urtez. Dagoeneko ohitura bilakatu zaigu azoka hau eta gero eta jende gehiagok gogo handiz itxaroten du.

Aurten ere oso arrakastatsua izan da dudarik barrik. Eguraldia guztiz kontra izan bazen ere, makina bat plazentziar gerturatu zen Errege Etxe aldera herriko produktuak ikusi eta nola ez, erostera. Kanpoan bizi diren plazentziar bat baino gehiago ere azaldu zen azoka ikustera.

Guztira, 28 saltoki izan dira aurten. 13, nekazal produktuak saltzen, 8 artisau eta 7 animaliekin (4 ganaduarekin eta 3 hegaztiekin). Postuak, zein baino zein ikusgarriago egon dira, gainera. Saltzaileek esandakoaren arabera, ahalegin eta lan handia hartzen dute Gaztañerre azokarako.

Antolakuntza ona

Baina hartutako lanak merezi ere merezi duela adierazi ziguten saltzaileek. Xabier Zabala hegazti saltzailearen ustez, "giro polita sortzen da azokaren baitan, eta jendea geroz eta gehiago animatzen ari da". Aitor Amor bastoigilearen esanetan, "oso ondo antolatuta dago azoka. Geu ere asko ahalegintzen gara gure lanak ondo gertatzen". Muneta baserrikoen iritziz, berriz, "azoka urtero-urtero hobetzen dihoa; gutxi bezala ondo antolatuta dago. Gainera, bakarrik herrikoentzat izatea ere prime-



Jende ugari gerturatzen da urtero Gaztañerre azokara.

ran dago". Joxean Arluziaga narru langilearen esanetan, "galdu behar ez den zerbait da Gaztañerre azoka". Iritzi berdina du Jose Lizarralde galtzerdigileak; honen ustez, gainera, "Gazteñerreko azokaz gain, urtean beste bat balego, hobe".

Ikusi eta erosi

Askok uste baino gehiago erosten omen da azokan. Baserritarren kasuan batez ere. Obe baserrikoek dioten moduan, "jendeak zer dagoen ikusten du lehenengo eta gero erosi". Muneta-koek ere asko erosten dela diote; Etxeberri baserrikoiei, adibidez, postu guztia hustu zitzaizen azokak irauten artean.

Artisauen kasuan, baina, egoera desberdina da. Tere Guenetxeak dioten moduan,

euren kasuan ez da erreza izaten egindakoak saltzea. Jendeak ez du poltsikoan diru kopuru handiak eramateko ohiturarik eta eskulanak beste edozein produktu baino garestiagoak dira, normala den moduan. Batez ere enkarguak jasotzen dituzte artisauek, gero urtean zehar egiten dituztenak. Oskar Elizburu ere iritzi berekoa da, "enkarguak egiten ditu jendeak. Beste-

"Askok uste baino gehiago erosten da azokan.

Etxeberri baserrikoiei, adibidez, postu guztia hustu zitzaizen".

la, gauza txikiak izaten dira saltzen ditugunak".

Animalien kasuan, gehiago izaten da eskaparate antzeko zerbait. Xabier Zabalaren esanetan, "jendeak begiratu eta galderak egiten ditu batipat".

"Gonbidatu" bereziak

Urtero moduan, azokak "gonbidatu bereziak" izan ditu. Danbolina aldean dutela, hantxe agertzen dira herriko gaztainagileak giroa berotu eta jendeari jaten emateko prest. Etxeberriarrak eta beste "amonatxo" ezezagun bat jo eta fuego ibili ziren gaztainak egin eta saltzen. Ez dute, ordea, diruaren truke egiten. "Ez dugu gauza handirik lortzen. Merke-merke saltzen ditugu gaztainak, pote bat edo beste edateko soilik ateratzen dugu, baina

bueno, gustora gatoz”.

Jatorria

Kontuak kontu, orain lau urte abian jarri zen ekimen honek arrakasta majoa izaten du Plazentzian. Jatorri bitxia du, baina, ohitura berri honek.



Euskal arrazako oiloak salgai.

Orain lau bat urte, Plazentzian izan ezik, Deba Barreneko beste herri guztietan azokaren bat ospatzeko ohitura zegoen. Hori dela eta hemen ere bat egin beharra zegoela erabaki eta Gaztañerre inguruan ospatzea ondo egongo zelakoan, data eta izen hori jarri zitzaion azokari.

Hortxe dago, beraz, eta halaxe segitu dezala urte askoan. Guk galdetu genien artisau eta baserriar guztiak datorren urtean errepikatzeko asmoa dutela adierazi digute eta noski, gu geu ere prest gaude horretarako.

Ubane Madera

Beti Presten deialdia

Soraluzeko Beti Prest Parrokiako Aisialdi Elkarteak begiraleak behar ditu jardunean aritzeko. Euren lana izango da, herriari eta gaztetxoei zuzendutako ekintzak antolatu eta egitea, halanola, Errege Kabalgata, Haratuzteak, Danborrada... Honetaz gain, zapatuero ekintza bereziak egiten dituzte.

Parte hartzeko soilik beharrezkoa izango da 18 urte beteta izatea eta gogoak edukitzea. Interesatuentzat, ostiralero bilerak daude Parrokia Etxean (azkenengo solairuan) gaueko 23:00etan.

Maritere, Lezarri baserrikoa: “Nire produktuen itxura onaren sekretua da kariñuarekin tratatzea. Jakiak kurioso-kurioso bildu eta ekarri.”

Lezarri baserrikoek eraman dute aurten Gaztañerre azokako lehenengo saria. Baserria geografikoki Mekolalden kokatu arren, urte asko dira familia honek Plazentzia aldera jotzen duela.

- Zenbat urte daramazue Plazentzian zuen baserriko produktuak saltzen?

- Buf! 100 urte inguru. Nire arbasoak honetan aritzen ziren gu hasi arte.

- Lan asko ematen al du azokarako prestatzeak?

- Lan asko ematen du, bai. Barazkiak, adibidez, azkenengo orduan bildu behar dira frexko egoteko. Beste batzuk, gaztainak, adibidez, aurretik hartu behar dira.

- Baina merezi du?

- Merezi du, bai. Gustora etortzen gara; gainera, orain irabazi dugula eta, inoiz baino gustorago.

- Pozaz gain, zer ematen du lehenengo saria irabazteak?

- Aurrera segitzeko animo handia, ahal dugun bitartean, behintzat. Horretaz gain, nik neuk ondo saldu izan ditut nire produktuak jendeak badakielako jeneroa ona dela, etxetik zuzenean datorrena.

- Zein da zure produktuen itxura ezinhobearen sekretua?

- Kariñuarekin tratatzea da jeneroak itxura ona izateko sekretua. Produktuak kurioso-kurioso bildu eta ekarri.


- Plazentzian zer moduz hartu zaituztegu?

- Herria oso ondo portatu da gurekin.

- Datorren urtean etorriko zarete?

- Bai, bizi bagara behintzat etorriko gara; inoiz baino animo gehiagorekin, gainra.





Bandia 1946 ko San Inazio egunez.

Santa Zezilia eguna pasatu dela eta, egokia iruditu zaigu Plazentziako banda zenari omenaldi antzeko bat egitea, San Inazio bandari, hain zuzen ere. Zoritxarrez, desagertuta dago banda hau 1966az geroztik.

Banda honek Plaza Berrian jotzen zuen neguan arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara; euria zenean, Errege Etxera edo Kontzejupera joaten ziren. Udan, berriz, Plaza Zaharrean egiten zituen kontzertuak, gaueko 21:00etatik 24:00etara. Bukatu ostean, serenoa tabernarik taberna joaten zen atea ixtera. Beste zeregin handi bat ere egiten zuen bandak: Garizuma ostean, gaixorik

zeuden herritarren etxera joaten zen parrokoarekin batera komunioa eroatera. Hau, doanik egiten zuen San Inazio bandak.

Argazki hau, 1946. urtean atera zitzaion Ospitale Zaharren aurrean, San Inazio egunean, hain zuzen ere.

Goitik hasita ezkerretik eskumara daudenak dira: Laureano Aristi, Felix Galarraga, Fausto Aristi, Jose Zangitu, Pedro Galarraga. Hauek guztiak klarinetea jotzen zuten.

Bigarren ilarakoak ezkerretik hasita dira: Angel Galarraga, saxofoi jolea, Jose Mari Aizpirik eta Antonio Larrañagak tronpeta jotzen zuten. Azkena, berriz, Ignacio

Aristi da, klarinete jolea.

Hirugarren ilaran daude: Pepe Valencia eta Andres Gallastegi tronboi joleak, Manolo Pintado bonbardino jolea, Jesus Caminaur, saxofoi jolea, Paco Ucin, fliskornio jolea. Behean daudenak dira: Modesto Arano, baxujolea, Timoteo Urizar, platertxo jolea, Joakin Ziordia bonbo jolea eta Herman Oregi bandaren zuzendaria. Honen ondokoa, José Luis Ucin da, kaja jolea eta azkenik, Alfonso Aristik, berriz, baxua jotzen zuena.

Argazkia: G. Argarate

Berriematea: G. Argarate eta Paco Ucin.

KATEBEGIAK

Zeinek daki; baina behin batek kontatu zoztan, taillarretik makina bat konpontzera Txinara bialdu zebela. Haraxe heldu ta hasi zan lanian eta horrela zebilela, txinatar bat ikusi zeban taillarreko lurra pikatzen, begira zegoela oharatu zen zerabilen zinzalak, punta zorrotza euki beharrian borobila zeukala; misteriotso eskatu zinzela, esmeril batera joan eta punta zorrotzu ostean, berriro emon eta esan zotzala.

- Era hontara bukatuko duzu !

Jarraitu zuten bakoitzak bere lanekin eta handik ordu batzutura txinatarra pikatzen ari zen lekutik pasa ta, konturatu zan, berriz, punta borobildun zinzal batekin zebilela; bata besteari begira geratu eta lagunaren aurpegia ikusita, irrifartsu esan ziola.

- Arrazoa zeukazun bizkorrago pikatzen da, baina ez da denbora kontua, nik ez daukat prixarik.



SAN ANDRES

ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUAK

TLF: 943751646

RABAL 2 SORALUZE

Xabier Iribar

KANUTILOAK

Osagaiak: (6 pertsonentzat)

500g hojaldre
500g krema pastelera
Azukre glasa
Arraultza bat

Krema pastelera egiteko:

fi 1 esnea
100g azukre
35g irina
6 arraultza gorringo
Bainila edo kanela arramatxo bat



Nola egin:

Inoxidablezko zilindro batzuk behar ditugu, eta beraien neurrira hojaldre lamina hori ebaki behar dugu eta kiribildu. Gainean irabiatutako arraultza emango diogu pintzel batez.

Labean sartuko dugu 15 minutuz 200°C -tan.

Krema pastelera nola egin:

Esnea irakitzten ipini. Beste osagai guztiak nahastu, irakin egindako esnea gainean bota eta dena 3-4 minututan irakitzten utzi.

Manga pastelera batez kanutiloak kremaz bete eta gainean azukre glasa botako diogu.

On egin!!

Oraingo honetan Xabier sukaldari gaztearekin bildu gara soraluzetar guztiontzat ezaguna den Armendia jatetxean, eta "Kanutiloak" nola egiten dituzten azalduko digu.

Ehun urte baino gehiago dira Iribar familia toki eder honetan bizi dela. Xabierren gurasoak beti mugitu izan dira sukaldaritza munduan, eta nolabait, etxekoen ohitura jarraituz, Xabierrek sukaldaritza ikastaro desberdinak egin ondoren bere anaia Iñakirekin batera orain dela hamabi bat urte hartu zuten jatetxearen ardura; etxea berriztu eta horrela aukera haundiko toki txukun eta eroso bat eskeintzen dute. Lana oso lotua dela azaldu digu Xabierrek, ez baitute urte osoan ixten, baina bere gauza onak ere baditu eta etxeko guztiak bertan egonik pozik daude.

JUAN MARI
ARRANDEGIA
ARRAIN FRESKU - FRESKUA !!
TLFNOA: 943752440 SORALUZE



PASCUAL CHURRUGA S.A.
Tornilleria estanpada

Errekalde 21
telef. 943751600 eta 943751604
Faxa 943 752461 20590 SORALUZE

Kirolberri

JUAN ALBERDI 14. POSTUAN BEHOBIAN

Izugarrizko marka eginaz 14. postuan sartu zen "Juan-txo" Behobiako kros entzute-tsuari. Hona hemen herritik (guk dakigula) jondakoen lasterkariak egindako markak.

Juan Alberdik 1.05.21,
Carlos Decosek 1.20.48,
Mikel Tornosek 1.22.56,
Roman Elorzak 1.41.58,
Bittor Trebiñok 1.42.01,
Aitor Artolazabalek 1.45.42,
Moises Altunak 1.45.20
Ander Epeldek 2.13.10.

ARRIETA ETA MUGURUZA DV-KOKO SEMIFINALETAN

Matienan jokatu zen DV Txapelketako bigarren faseko partidua, 22 eta 16-ko emaitzarekin irabazi ostean Arrieta eta Muguruzak (bergararrak) semifinaletarako txartela lortu zuten.

MAIALEN GALARRAGA ESPAINIAKO FINALEAN

Maialen Galarraga Soroluzetarra Eibartarrak futbol taldearekin, Espainako Superkopako finala jokatzen ari da. Eibarren 3 eta 0 irabazi zuten Maialenek eta bere taldeak, eta bueltako partidua Madrilan jokatuko dute I-gande honetan bertan.



Maialen Galarraga

INIGO EGUREN: Soroluzeko F.T.-ko entrenatzailea eta jokalaria ohia.

"Entrenatzaile onena 'Nino' izan da eta jokalaririk konpletoena Aitor Fernandez."

Aspalditik Soroluzerekin lotura estua duen gaztea da Inigo. Orain urte batzuk, jokalaria izana, geroago, gaztetxoekin hainbat urtetan ibili izan da kategoria ezberdinetan entrenatzaile gisa. Kotxe istripu baten ondorioz, hiru urtetan "geldirik" egon eta gero, indar berriturik eta ilusioz beteta aurkitu dugu bene benetan kirola maite duen Soroluzeko erregional taldearen entrenatzailea.

Ze bultzatuta animatu zara Soroluzeko F.T. a entrenatzaile?

Betidanik gustatu izan zait entrenatzea, horrez gain Soroluzen dagoen giza taldea ikusita, ilusioa piztu egin zitzaidan eta pozik hartu nuen ardura hori.

Erregionala entrenatu aurretik, ze mailatan entrenatu izan duzu?

Entrenatzaile bezala, lehenengo pausoak eskolatan eman nituen, Soroluzen, Bergaran, eta baita Elgoibarren ere. Gero, aurretik erregionala hartu aurretik, Soroluzeko F.T. ko kadeteak eta jubenilak ere entrenatu izan ditut.

Sarritan ikusten zaitugu gazteen partiduak ikusten Ezozin. Zer dela eta?

Gustatzen zait futbola eta batez ere, gaztetxoena gar-

bia delako. Horrez gain, gazteen bilakaera antzema-tea gustukoa dut. Egia esateko, zapatuetako partiduetan poztasun handiagoa hartzen dut "Champion League" koak ikusten baino.



Konpara itzazu zure jokalaria garaia eta gaur egungoa.

Dudarik gabe, futbol zelaia. Gaur egun, ia guztiak, belar artifiziala daukate. Lehen indarrak zuen garrantzi gehiago, orain, berriz, teknikak, batez ere futbol zelaiek eraginda.

Nolako denboraldia egin dezake Soroluzeko Zeintzuk dira helburuak?

Gutxienez, iazkoa bestekoa. Maila honetan ez dago ezberdintasun handirik taldeen artean. Neurketa gehienak parekatuak izango dira; goian egoteko taldea dugula uste dut.

Zein izan da Soroluzetik bere historian pasatu den jokalaririk onena zure ustez? Eta entrenatzaile onena?

Datuak horrela azaldu ez arren, hau da, maila gorenetan jokatu duten jokalaria batzuk egon badira ere ("Utxurri", Bedaio, Placencia,...), zalantzarik gabe, onena niretzat Aitor Fernandez izan da.

Aitorrek, edozein postutan joka zezakeen eta gainera, guztietan ematen zuen errendimendua ezin hobea izaten zen.

Entrenatzaileari dagokionez, niretzat, onena "Nino" izan da, jokalaria bakoitzari zuen onena ateratzeko orduan maisu baikeen.

Orain dela gutxi Errealak Klemente fitxatu du. Ikusiko al zaitugu inoiz Errealeko eserlekuan?

Hum....., ezetz esango nuke, baina egunen batean....., zeinek daki.


ORKATILAKO ZAINTIRATUAK

Zaintiratuak, zoritxarreko zaintiratuak, nork ez du noizbait bere orkatilan sentitu hauek sortu ohi duten suge horzkada gisako ziztada bizia? Bai, zoritxarrez guztiok izan dugu gure bizitzan zehar lesio hau gainditu beharra. Baina ba al dakigu "zaintira-

tu" hitzaren esanahia? Baliteke nor edo nork jakitea baina nahiz eta hitz hau gure ahotan sarri erabili, ziur nago asko eta askok ez dakiela zein den honen esanahia, galdetuz gero erantzunetako bat hau izan liteke. "Orkatila bihurritzean sortzen den lesioa, hau

handiturik agertzen zaigularik..." edo "hausturarik eman gabe sortzen den lesioa"... Erantzun hauen tankerako asko jaso genitzake, baina ikus dezagun zer diren zaintiratuak:

Guk orkatilako zaintiratuak hitz egingo dugu hauek baitira gehienetan jasaten ditugunak. Orkatilako zaintiratuak, honen kanpokalderunzko nahiz barnekalderunzko okertze bategatik ematen dira. Ohikoena inbertsio zaintiratu deritzona dugu eta hemen orkatilaren barne anguluaren murrizketa ematen da, orkatilak kanpoalderetik hezurrez osaturiko oinarri finkoagoa baitu barnekaldearekin alderatuz. Hau dela eta orkatila okertzean ligamen-



Orkatila esginzeak

toek jasan dezaketena baino presio handiagoa sufritzen badute zauritu egiten dira. Zauri hau ulertzeko ligamtoa muelle batekin pareka genezake. Muelle bat bi aldetatik tiratuz gero indarra egiteari uztean bere hasierako egoerara itzultzen da, baina indar hau oso handia bada ez da hasierako egoerara itzultzen eta egoera honetan baino luzeera handiagoa izaten du. Ba horixe bera gertatzen zaio ligamentuari ere.

Zaintiratuak:

Artikulazio bateko ligametoetan ematen den lesioa da. Mugimendu oker baten ondorioz ligameto hauek gehiegizko indarra bat jasotzean ematen den barne zauria dela esan daiteke.

3 inbertsio zaintiratu mota edo 3 gradutako zaintiratuak aurki ditzakegu:

Lehen mailakoko orkatila inbertsio zaintiratuak:

Ohikoena dugu. Lesioa jasaten duen ligamtoa aurreko peroneoastagalinoa, bertan distensio bat ematen delarik hausturara iritsi gabe. Min apur bat sentitzen da eta inflamazioa ager daiteke.

Bigarren mailako orkatila inbertsio zaintiratuak:


Ligamto peroneoastagalinoa hautsita aurki dezakegu eta peroneokalkaneoaren distentsioa bat ematen da. Inflamazioa ematen da eta normalean

min biziagoa ere aurkitu ohi da. 3-4 egunen buruan orkatilaren dekolorazioa agertzen da.

Hirugarren mailako orkatila inbertsio zaintiratuak:

Kasu honetan aurreko bi ligamtoen hausdura ema-

ten da. Inflamazioa orkatila guztian agertzen da min biziak lagunduta.



Lesioa

jasan bezain laister zer egin?

Lehenik eta behin izotza jarri behar da ahal den eta azkarren inflamazioari aurre egin eta mina kentzeko. Honez gain lesioa arina bada orkatila benda elastiko batez batuko dugu, baina ezinbestekoa izango da medikuarengana joatea

LEHIAKETA



Zein

egun

garrantzitsutakoa

da

Gure sari mundiala irabazi

nahi baduzu

argazki

Deitu 943751304 telefonora.

hau?

Saria: 2 pertsonarentzat afaria Soraluzeko edozein jatetxetan.

Aurreko aleko irabazlea:



*Urrategi
Gantxegi*

Ale honatik aurrera sail honetan agenda ere sartuko dugu. Guk argitaratu nahi duzen deialdirenbat baduzue ez duzue Soraluzeko 64 P.K. ra gutun bat bidali edo 943751304 telefonoko erantzungailuak ustea besterik.

BADATORRELA, BADATORRELA !!



aurten be Olentzero !!



Danondako opari
mordo batekin.

Entzun entzun ze diñuan





GAZTELUPEKO
HO T S A K



Tlf 943753016 Faxe 943750139 94.p.k. Soraluze 20590



Joseba Tapia
QUÉBEC kantari
Pascal Gaigne
Itxaro Borda
Koldo Izagirre...



Lorelei
Tatuatu zenidan zerua

Asier Serrano eta
Mikel Gorosabel "Norton"
Beraien bigarren lana



Mikel Urdangarin
Haitzetan

Kantari bizkaitararren
lehen grabazioa.



Ene Bada
Durangaldeko
boskote Gaztea

Triki-rock Ai en!!!



Mikel Markez
Dena hankaz gora

Eta Pako Aristirekin
Tribuaren hitz galduak



Petti
Amets bat

Euskal Yarragh
Folk blues

Berako harrobia



Mikel Telleria
Deklarazioa

Pop-rockaren hildotik



Piztiak
Zero

Talde rokanroleroaren
diskorik rokanroleroena

Bideoklipa PCrako



Bide Ertzean
Zure Minari

Ubeda' anaien proiektua
Kaki Arkarazok ekoiztua



Su Ta Gar
1987-89

Hasierako maketen
kantuak

Jo Ta Ke klipa PCrako